



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2017ko maiatzak 11
Ordua: 19:00 – 19:55
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Jose Luis de Valle Duque, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: Artziniegako Udalak homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurka taxututako deklarazio instituzionala igorri dizuet gaur. Maiatzaren 17koa da. Ez nuen Batzordean sartu, eta Koadrilan onartu den testua igorri dizuet haren berri izan dezazuen. Horrenbestez, ongi baderitzozue, gai-zerrendako puntu modura barneratzeko bozketa egingo dugu? Guztiok ados, orduan. Azken puntu gisa utziko dugu.

1. 2017ko apirilaren 6an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue? Bi puntu daude.

Ascension Hormazabal Meabe: Iñigok orain aipatu dizkidan bi puntuetako bat, bidegurutze batzuen ingurukoa da. Zer esaten den ulertzen ez duelako da hori. Ez dakit zein orrialdetan den.

Alkatea: 11. orrialdean, zuk egindako mintzaldi batean Joseba, zera agertzen da: "XXXXXXXXX falta zitzaidanez esateko"

Joseba Vivanco Retes: Joseba gerturatu gehiago mikrora.

Ascension Hormazabal Meabe: gerturatu eta ahoskatu. Eta gero beste puntu batean...

Alkatea: eta gero, 6. orrialdean, hirugarren lerroaldean, "Muerako atearen parean jartzeko". ez Morakoan.

Joseba Vivanco Retes: Urduñako horrek alde egin die, Muera.

Alkatea: Horren ingurua, zerbait aipatu nahi duzue? Beno, orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.



Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2.- Katuen koloniak Kontrolatu eta antzutzeko Urteko Plana garatzeari buruz Artziniegako Udalaren eta Hirua elkartearen arteko Lankidetzaz Hitzarmena onartzea

“2017KO MAIATZAREN 4AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Ikusirik, Artziniegako Udalaren eta HIRUA elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmenaren eredu,(a)k egina, 2017ko maiatzaren 8ko datarekin erregistratua, 1262 sarrera-zenbakiarekin. ELKARTEAREN ORDEZKARITZARI ETA IFZ ZENBAKIARI DAGOZKION DATUAK FALTA DIRA KONTUAN HARTUZ hitzarmen horretan Udalak gehienez urtean bi mila euroko diru-laguntza emateko konpromisoa hartzen duela.

Diru-laguntzaren helburua KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEA da zehazki.

Diru-laguntzaren justifikazioa Egikaritze-aurrekontuaren Arauaren baitan geratuko da, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta hari dagokion Ordenantza onartzen ez diren bitartean.

KONTUAN HARTUZ Hitzarmen horren indaraldia 2017ko abenduaren 31n amaituko dela.

KONTUAN HARTUZ aurrekontuaren kontsignaziorik ez dagoela, dagokion aurrekontu aldaketa izapidetu beharko delarik Hitzarmena sinatu aurretik.

*2017ko maiatzaren 4an egindako saioan Lurralde Informazio-batzordeak erabakitzen du eta Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:*

LEHENA.- Artziniegako Udalaren eta HIRUA elkartearen arteko Lankidetzaz Hitzarmena onartzea, KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEKO jarduerak finantzatzeko helburua duena.

BIGARRENA.- Alkatetzari eskumena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa sinatzeko.”

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Maria Lorente Burgos: nik aipatu nahi dut Elkartearen Presidente modura abstentzioa emango dudala.

Ascension Hormazabal Meabe: beraz, zure izena da agertu behar dena.

Maria Lorente Burgos: baietz esango nuke. Karguak berritzeko garaia da, agian Alazneren txanda izango da.

Alkatea: orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta eta Inmaculada Vivanco Retes EAJ alderditik (2); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3.- Udal gazte zentroa kokatzeko asmoarekin Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren lehen eta bigarren ziurtagiriak onartzea.



“2017KO MAIATZAREN 4AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Gaia.- Udal gazte zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren lehen eta bigarren ziurtagiriak onartzea.

Ikusirik 2017ko martxoaren 25ean INDENORT P.V S.L. sozietateak aurkeztutako 016/17 faktura, 9.315,97 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren lehen ziurtagiriari dagokiona.

Ikusirik 2017ko apirilaren 25ean INDENORT P.V S.L. sozietateak aurkeztutako 024/17 faktura, 35.320,14 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren bigarren ziurtagiriari dagokiona.

KONTUAN HARTUZ lanak INDENORT P.V S.L. enpresari esleitu zitzaizkiola 175.333,30 euro gehi BEZ zergaren 36.819,99 eurotan, guztira, 212.153,29 euro izanik, Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 12an hartutako akordio bidez.

KONTUAN HARTUZ Udal arkitektoak 2016ko ekainaren 13an aldeko txostena igorri zuela 2016ko maiatzaren 8an 1399 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako Proiektua onartzearen inguruan, esku-hartzea arkeologia aldetiko kontrolaren baldintzapekoa dela azpimarratuz.

KONTUAN HARTUZ Emilio Belon jaunak, obraren zuzendariak 2017ko maiatzaren 3an lehen eta bigarren ziurtagiriaren txostenak igorri zituela, horietan hurrengoa jasoz:

“Lehen ziurtagiria behar bezala gauzatu da, dokumentazio grafikoan jasotzen denari eta beheran sinatzen duenaren zuzendaritza teknikoak esandakoari, nahiz zehazten diren partidei jarraiki, zeintzuen zenbatekoak honakoak baitira: Bederatzi mila eta hirurehun eta hamabost euro eta laurogeita hamazazpi zentimo.

Obran egiaztatu ondoren emaitzetan arkitektoak emandako Egikaritze Proiektuaren dokumentazioan ezarritako betekizunak betetzen direla, segidan banakatzen dira jarraian aipatzen diren partidetatik eratorzen diren kostuak, obraren sustatzaileak kontratistari ordain diezaion.

Ziurtagiri honetan ez da igoerarik eta jaitsierarik sortu Jatorrizko Proiektuaren neurketekin alderatuta.”

“Bigarren ziurtagiria behar bezala gauzatu da, dokumentazio grafikoan jasotzen denari eta beheran sinatzen duenaren zuzendaritza teknikoak esandakoari, nahiz zehazten diren partidei jarraiki, zeintzuen zenbatekoak honakoak baitira: Hogeita hamabost mila hirurehun eta hogeituro eta hamalau zentimo.

Obran egiaztatu ondoren emaitzetan arkitektoak emandako Egikaritze Proiektuaren dokumentazioan ezarritako betekizunak betetzen direla, segidan banakatzen dira jarraian aipatzen diren partidetatik eratorzen diren kostuak, obraren sustatzaileak kontratistari ordain diezaion.

Ziurtagiri honetan ez da igoerarik eta jaitsierarik sortu Jatorrizko Proiektuaren neurketekin alderatuta.”

Adierazitakoa oinarritzat hartuz, Lurralde Informazio-batzordeak Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

Lehena.- 2017ko martxoaren 25ean INDENORT P.V S.L. enpresak aurkeztutako 016/17 faktura, 9.315,97 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren lehen ziurtagiriari dagokiona, onartzea.

Bigarrena.- 2017ko apirilaren 25ean INDENORT P.V S.L. sozietateak aurkeztutako 024/17 faktura, 35.320,14 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren bigarren ziurtagiriari dagokiona, onartzea.

Hirugarrena.-Ekonomia Garapen eta Lurraldearen Orekarako Sailari akordio honen berri ematea, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barnean onartutako diru-laguntza izapidetu dadin, espediente-zenbakia: 16/10125-P..”

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?



Bozkatu egin da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4.- Udal igerilekuetako Taberna-kafetegiaren ostalaritza-ustiapena esleitzea.

“AKORDIO-PROIEKTUA

Ikusirik 2017ko martxoaren 20an Alkateak udal igerilekuetako Taberna-kafetegia alokatu eta ostalaritza-ustiapena gauzatzeko zerbitzua kontratatzeko premia hauteman zuela.

Ikusirik, zerbitzuaren ezaugarriak direla medio, itxuraz prozedura egokiena prozedura irekia dela, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren aldeko esleipen-irizpide bakarrarekin, prezio baxuenean.

Ikusirik, 2017ko martxoaren 20an, kontratazioak aurrekontuko baliabide arrunten gainean suposatzen duen portzentajeari buruzko Kontu-hartze txostena igorri zela.

Ikusirik, 2017ko martxoaren 20an Idazkaritzak txostena igorri zuela Legeria aplikagarriari eta jarraitzeko prozedurari nahiz kontratua onartu eta esleitzeko eskumena duen organoari buruz.

Ikusirik, 2017ko martxoaren 21ean kontratuaren esleipena arautzeko Klausula Ekonomiko eta Administratibo Berezien Plegua eta Baldintza Teknikoena idatzi eta martxoaren 23an, Udalbatzaren akordioz, espedientera gaineratu zela, eta 2017ko martxoaren 6an inbentarioa gaineratu zela.

Ikusirik, udal igerilekuetako Taberna-Kafetegia alokatu eta ostalaritza-ustiapena gauzatzeko zerbitzuaren prozedura ireki bidezko esleipenerako 2017ko martxoaren 23an, Udalbatzaren akordio bidez, espedientea eta Klausula Ekonomiko eta Administratibo Berezien Plegua eta Baldintza Teknikoena onartu zirela, eta 2017ko martxoaren 6an inbentarioa onartu zela, esleipen-irizpide bakar modura prezio baxuenari dagokiona aplikatuta, ere berean, haren esleipenak dakarren gastua baimendu zen.

Ikusirik, 2017ko martxoaren 31n lizitazioaren iragarkia argitaratu zela hamabost eguneko epez ALHAO aldizkarian eta kontratazio-organismoaren kontratatzailearen Profilean, interesdunek beren proposamenak aurkezte aldera.

Ikusirik, 2017ko apirilaren 24an Kontratazio-mahaia eratu zela, proposamen BAKARRA balioesteko eskumena duen organo bakarra, eta irizpide bakar modura prezio baxuenari dagokion kontuan hartuz, hark Miguel Alejandro Blanco Gonzalez enpresaren aldeko esleipen-proposamena egin zuela.

Ikusirik, 2017ko apirilaren 25ean kontratazio-mahaia Miguel Alejandro Blanco Gonzalez enpresak aurkeztutakoa ekonomikoki onuragarriena den eskaintza modura aitortu zuela, esleipen-proposamen honetan oinarrituta: 1.872€ urtean(BEZ aparte).

Ikusirik, 2017ko apirilaren 25ean ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu zuen lizitatuzaileari dei egin zitzaiola Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 146.1 eta 151.2 artikuluetan aipatzen diren egiaztagiria aurkezteko, nahiz behin betiko bermea eratu izana eta gainera kontratuaren gauzapenean erabili edo atxikitzeko konpromisoa hartutako bitartekoak erabilgarri dituela egiaztatzeko.

Ikusirik, 2017ko maiatzaren 4an Miguel Alejandro Blanco Gonzalez lizitatuzaileak behin betiko bermea eratu zuela 1.404,00 eurotan eta eskatutako egiaztagiria aurkeztu zituela.



*Dokumentuak aztertuta, Idazkaritzaren Txostena ikusita, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontraturen Legearen Testu Bateginaren bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoa betez, Udalbatzak **ADOSTU** du:*

LEHENA. *Miguel Alejandro Blanco Gonzalez enpresariari esleitzea udal igerilekuetako Taberna-Kafetegia alokatu eta ostalaritza-ustiapena gauzatzeko zerbitzuen kontratua prozedura ireki bidez, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza izaki, esleipen-irizpide bakarra dena, 2017ko martxoaren 31ko ALHAO aldizkariko 38. zenbakian eta kontratatzailearen profilean argitaratuta.*

BIGARRENA. *Kontratuaren esleipendun den Miguel Alejandro Blanco Gonzalez, jaunari Ebazpen honen berri ematea eta kontratua sinatzeko hitzordurako gonbidapena luzatzea, Artziniegako Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan maiatzaren 15ean, goizeko hamarretan (10:00).*

HIRUGARRENA. *Udal igerilekuetako Taberna-Kafetegia alokatu eta ostalaritza-ustiapena gauzatzeko zerbitzuen kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratzea”.*

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: nik gogoeta txiki bat egin nahiko nuke, ez esleipen honekin burutu den izapideari buruz, baizik eta gaur. Joan den asteartean, osteratxo bat egitera joan nintzen landa aldera. Esleipendun berriak bertan zirela ikusi nuen, garbiketa egiten ariko zirela suposatuta nuen, eta instalazioak zertan ziren ikustera hurbildu nintzen. Nik guztioi gonbidatuko nizueke hura jaistera, egia esan, tamalgarria baita ikustea nola Artziniegako Udalak eraikina horrela honda dadila baimendu duen, dagoen egoera horretara iritsi arte. Hori alde batetik, horrela honda dadila baimentzea. Bigarrenik, eraikin bat, udal zerbitzu bat, egoera horietan entregatzeko gauza izatea. Instalazio horiek ez dute hautsetarako trapu bat edo erratz bat ikusi urtetan. Azken esleipendunak joan zirenetik gutxienez, eta horrela entregatu dugu instalazio hori. Horrez gain, badira hainbat elementu, esate baterako, sukaldea eta taberna, hozkailua, izan ere, Laudioko Garbigunean hor behean daudenak baino hozkailu hobek daude. Badira erabilgarri ez dauden gailuak ere, funtzionatzen ez dutelako edo elementuak falta dituztelako. Ez dakit jende horrek zein asmo izango duen. Beno, Plegua berrikusi dut eta behin instalazioak entregatu ondoren akta bat jaso behar dela ezartzen da, instalazioak, makineria eta altzariak zein egoeratan entregatzen diren adierazteko akta bat jaso behar da, bi aldeek sinatzekoa. Ez dakit Udala zein neurritara arte egingo den erantzule bertan dauden gauza batzuetan oraindik gasturen bat egitearen gainean. Izan ere, Pleguan, baldintza teknikoan Pleguan, jasotzen denez, azken batean inbentario batean deskribatzen diren higiezin bat, makineriak, altzariak eta instalazioak ari gara entregatzen. Baina gauza bat paperean jasotzen dena da, gauza bat hozkailu bat dagoela esatea, ez dakit zer dagoela esatea eta ez dakit zenbat esatea da, ontziteria dago, aukiak daude... eta beste gauza bat hura nola dagoen ikustea da. Egia esan lotsatzeko modukoa da. Eta hor uzten dut, baina berriro diot, ez dakit, Udal modura, nola entregatu ditugun instalazio horiek egoera horretan. Berriro diot, ez dakit zein jarrera hartuko duten esleipendunek, ez dakit Udalari gauza batzuen gainean ardura hartzeko eskatuko dioten ala ez, baina hor uzten dut.

Alkatea: bakarrik aipatu nahi dizut bazutela egoera horren berri ikusi egin baitzuten. Sarritan ikusi zuten. Inbentarioa egin zen ez zegoelako bertan zegoena jasotzen zuenari buruz inbentariarik eginda, orduan, dagoena jaso baino ez da egiten. Pleguan bertan ekipamendu batzuk aldatu egin behar direla adierazten da, eta horregatik ezartzen da hor. Atxikitako lokalak duela gutxira arte erabili dira. Agian baldintzak ez ziren onenak izango, baina duela gutxira arte erabili dira. Eta jakina, urte asko daramatzanez erabili gabe, urte asko baitira dagoeneko, bada, tira, higiezinak ere, sukaldea eta abar, hondatu egiten dira.

Joseba Vivanco Retes: jakina, ados nago, baina uste dut guztiok egongo zaretela ados nirekin, norbaiti instalazio batzuk horrela entregatzea, udal instalazio bat norbaiti esleitzea eta, berriro diot, bertatik hautsetarako trapu bat pasa gabe urtetan, salatzeko modukoa da. Udal modura salatzekoa da. Izan ere, nire ustez, beste edozein lokal, inori esleituiko diogun beste edozein leku, hau da, ez diogu norbaiti zikin eta utzita dagoen lokalik uzten. Ez, garbi mantentzeko ahalegina egiten da. Baina lokal bat, esleipen bat eman dugu eta egia esan hura ikusteko dago. Horrez gain, berriro diot, badira han klausuletan jasotzen ez diren elementuak,



izan ere, klausuletan 12.000 euroko inbertsioa zehazten da, egin beharrekoa, han elementuak egongo dira, bi aldeek inbentarioa jaso eta sinatu egin beharko dute. Gogoratzen dudanez, ez dakit egongo den ala ez, bada aurreko esleipendunak emandako fidantza, izan ere, pentsatzen dut, ez dut aurreko esleipendunaren baldintzen Plegua ikusi, baina egungoaren arabera, pentsatzen dut argi geratuko dela bertan behin joan ostean instalazioak zein egoeratan utzi behar dituzun. Berritot, ez dakit aurreko baldintzen Agirian jasotzen den ala ez. Baina hori jasotzen bada, labor bada ere, hor bada dagoeneko inbertsio bat esleipendun berriak sartzeko besterik gabe. Agian fidantza hori erabili beharko da, entregatu ez bada edo entregatu bada.

Alkatea: bada, txosten teknikoan adierazten denez, ñabardura txikiak baino ez dira falta fidantza entregatzeko.

Joseba Vivanco Retes: bada, inbentarioan hozkailu bat jasotzen da, zuk hozkailua ireki eta bertatik edozer gauza irten dakizuke. Ez dago erabilgarri. Sukaldea, labeen kasuan, ez dakit, kolpeka irekiko zuten, izan ere, baziren olio z beteriko zartaginak goraino beteta bizpahiru urtez horrela zeudela, ez dakit zenbat denbora emango zuen olio hark. Izotzak egiteko tabernako makinak ez du funtzionatzen eta, horrez gain, esaten zutenez, aurrez ere ez zuen funtzionatzen, tapa falta zen, eta horrela gauza asko. Azken batean, zer gertatu da? Aurrekoa itxi zela, aurreko esleipena itxi ere ez zen egin, oraindik konponketa batzuk eskatzen ari baikara, hots, esleipen hura amaitu zen, iruditzen zait hura nola zegoen begiratu ere ez zela egin, bestela beste modu batera jardungo baitzen jakina, eta orain bada, barkatu horrela esatea, baina orain hauei ziria sartzen diegu, badakite zer dagoen bai, baina gauza bat da zer dagoen ikustea eta beste bat da esatea... ez zatekeen deus kostatuko eta uste dut logikoa izango zatekeela, sartu baino lehenago, hara joan eta beharrezkoa balitz garbiketa-enpresa bati deitzea, hari astindu bat ematea, garbiketa sakona egin eta egoera onean entregatzea. Azken batean, apur bat pun, pun, pun, pun egin da, baina uste dut ez direla baldintzak. Udal modura itxura eskasa eman dugu hor.

Alkatea: berriro diot, badugu dagoeneko txosten bat. Bertan aurreko esleipendunari adierazten zitzaien zer zen fidantza itzuleran jaso ahal izateko egin behar zuena, eta kasu honetan ahalik eta lasterren helarazi dizkiogu giltzak esleipendunari, eta bazekien, sarritan egon zen lokala nola zegoen ikusten.

Joseba Vivanco Retes: jasota gera dadila, eta beno, haiek ikusiko dute zerbait eskatu behar duten ala ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: nire ustez, Joseba, azken batean azterketa argi dago, ezta. Zu joan zara ikustera, bada begira, hori aurreratu duzu, eta uste dut lizitazioaren oinarriak atera baino lehen, nire ustez, hemen gauden guztiok, ez naiz bederatziez hitz egiten, baina bai, gutxienez, hiru taldeei buruz, hau baliagarri izango zaigu zerbait lizitazioa atera behar dugun hurrengoan, zein egoeratan ateratzen diren begira dezagun. Izan ere, Iñigok dio, jakina, igerrilekuen esleipenduna den pertsonak instalazioak ezagutzen zituela, jakingo zuen trapu bat ez dela han pasa eta zein egoeratan dagoen eta, beno, tira azken batean balioan jartzen ari garena da Udalak zerbait lizitazioa atera aurretik zein egoeratan dagoen ikusi behar duela eta funtzionamendurako bideragarri izateko moduan ipini behar duela. Horrenbestez, ni zurekin bat nator erabat Udal modura huts egin dugula diozunean.

Joseba Vivanco Retes: baina salbuespen batekin, ez zuk eta ez nik, ez dugu gobernatzen.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, Joseba, baina azken buruan zu duela bi aste joan eta ikusi zenuen moduan, bada hori aurreratu duzula esaten ari natzaizu, azken finean, Udal honetako edozein pertsonak, bederatziz gara, Alkatea aparte utzita, egin genezakeen hori egiaz, begiratu eta zein egoeratan dagoen azaldu. Nire ustez hori guztiontzat izan behar da baliagarri, eta guztiontzat esaten dudanean, Udal hau osatzen dugun guztioz ari naiz hitz egiten, baliagarri izan behar zaigu hurrengoetan hobeto egin dezagun hainbat gauzatan, kontu honekin edo Artziniegako Dorrearen ustiapenaren gaiarekin, iraganeko akatsak ez daitezzen berriro egin. Edozein modutan ados nago Josebarekin.

Joseba Vivanco Retes: eta kontratuak amaitzen direnean zer egin ez den behatu dezagun.

Joseba Elejalde Ribacoba: erabat ados zurekin Joseba. Arrazoia ematen ari natzaizu.

Alkatea: behin begiratu zen eta, are osasun arloko langileak ere izan ziren instalazioak ikusten gerora Plegua eratze beharrezkoak ziren egokitzapenak hautemateko. Aipatzearen. Besterik?



Bozkatu egin da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- Artziniegako Udalaren deklarazio instituzionala homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurka.

Inmaculada Vivanco Retesek irakurri du deklarazioa.

“ARTZINIEGAKO UDALAREN DEKLARAZIO INSTITUZIONALA, MAIATZAREN 17KOA, HOMOFOBIA, LESBOFOBIA ETA TRANSFOBIAREN AURKAKO EGUNA.

Urtero, maiatzaren 17an, Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Eguna aldarrikatzen dugu.

Artziniegako Udaletik orientazio sexualaren eta genero-identitatearen ondoriozko diskriminazioaren aurkako borrokan gure konpromisoa berretsi nahi dugu.

Egia da azken urteotan urrats handiak eman dituztela LGBTBIQ kolektiboek, izan ere, zenbait lege eta eskubide berdindu egin dira. Haatik, konkista sozial ugari daude gainditzeke oraindik, esate baterako, orientazio sexualaren eta genero-identitatearen ondorioz sortutako indarkeria desagerrarazteko, eragina baitu gure gizartean lesbiana, gay, transexual, bisexual, pertsona transgenero eta intersexualen artean.

Egoera horren ondorioz, lesbiana, gay, transexual, bisexual eta pertsona transgeneroek sarritan intimitate eta isilpe zorrotzean gordetzen dituzten adierazpen afekziozko eta sexualak, balizko jazarpenen beldur.

Horregatik guztiagatik, berdintasuna eta aniztasuna ezaugarri dituen gizarte bat eraiki ahal izateko, Artziniegako Udalak konpromisoa hartzen du hurrengo premisak betetzeko:

1. Pertsona guztiak errespetatzea, edozein izanik ere bakoitzaren orientazio sexuala eta genero-identitatea.

2. Pertsonen duintasuna eta osotasun fisiko eta psikikoa errespetatzea, eta espazio publikoan egiten diren adierazpen homofobo, lesbofobo eta transfoboak irmotasunez kondenatzea.

3. Adierazpen afekziozko eta sexualak eta genero-identitate ezberdinak espazio publikoan ager daitezela errespetatzea.

4. Aukera sexual eta genero-identitate ezberdinekin lotutako irudi duin bat sustatzea esparru guztietan.

5. Gizarte pluralago, zabalago eta integratzaile baten aldeko esperientzia eta jarrerak sustatzea, non orientazio sexuala eta genero-identitatea ez diren eragozpena izango inorentzat.

6. Sexualitate anitzaren alde urratsak ematea, mitorik gabe, alderaketa eta inposiziorik gabe, eta sexualitate askearen aurkako jokabide guztien aurka azaltzea.”

Alkatea: berriro diot, ahaztura izan da Batzordean ez aipatzea eta hau da Koadrilan onartu den testua. Zerbait esan nahi baduzue.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.



Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

6.- Udalbatzari Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 2017ko 54 eta 67 bitarteko dekretuen eta 47. Dekretuaren berri eman du.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

7.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Inmaculada Vivanco Retes: maiatzaren 17koaren harira, bihar deialdiaren kartela aterako dutela aipatzea, besterik gabe. Hilaren 17an zine forum txiki bat egingo da liburutegian. Bertan zenbait bideo proiektatuko dira, joan den hilean ere proiektatu zirenak, Zinegoaken parte hartu zutenak, hain zuzen, eta era berean, Chrysallis elkartearen bideoa proiektatuko da, egin duten azken bideoa. Halaber, aipatu nahi dut koadrilako berdintasun eremuan ikastetxearekin eta Chrysallis elkartearekin lan egiten ari direla, zehazki Miren, eta dagoeneko egin dute mintegiren bat, batez ere, transgeneroaren gaiarekin, eta ondoren ekainaren 28an beste zenbait hitzaldi emango direla, orain prestatzen ari direnak, Berdintasunaren azken foroan aipatu zenarekin bat etorritz, Miren, berdintasun arloko teknikaria, ari da hori prestatzen. Maiatzaren 17a hortxe dagoenez, oso hurbil...

- Alkatea: ezer baino lehen, aipatu lurraldearen azken batzorde horretan ez dela Aintzane egon, baina hurrengora bertaratuko dela.

- Joseba Vivanco Retes: nik kontu bakarra, Tubacex enpresak Artziniegan bizi duen egoerarekin lotuta. Badakit, hala esan didatelako, enpresa-batzordea egon dela zurekin Iñigo, bere garaian izan zirela uste dut... gure taldetik bakarrik, bada ez dakit, uste dut korporazio modura interesgarria izango litzatekeela, agian bilkura bat egitea enpresa-batzordeko kideekin oraintxe bizi duten egoerari buruzko azalpenak eman ditzaten, grebak egiten jarraitzen dute, eta pentsatzen dugu interesgarria izango litzatekeela hemen enpresa-zuzendaritzarekin bilkuraren bat hitzartzea, dagoeneko egin ez bada, batez ere haien iguripenak ezagutu eta enpresarekin zer nolako etorkizuna aurreikusten duten jakiteko, izan ere, azken batean denetarik ari gara entzuten. Alde batetik, langileen gaia dago, eta bestetik Artziniegan epe laburrean halako enpresa bat ixteak zer suposa dezakeen ikustearen gaia dago. Beraz, uste dut Udal modura enpresak faktoria horrekin dituen aurreikuspenak zein diren jakitea interesatzen zaigula.

Alkatea: ni sindikatuko ordezkariarekin egon naiz eta enpresarekin ere izan dut bilkura bat, EEE espedientea planteatu aurretik, arrazoiak zein ziren jakiteko gehienbat, zein egoeratan zeuden ikusteko... eta beno, bai jorra dezakegu, lasai asko. Nik uneko egoera bat izango dela pentsatu nahi dut, eratorritako egoera bat... horrela izatea espero dut, merkatuarekin berarekin lotua, eta tira, petrolioaren berreskuratuta berriro kodoaren eskariak igotzea. Produktu espezifiko samarra da eta, itxura batean, hemen Artziniegan TTA bidez egiten den produktu espezifiko horretan halako lehiarik ez dago, baina tira, lasai asko jorra dezagun kontu bat da.



Joseba Vivanco Retes: nik uste dut egoera eta, batez ere, azken batean entzuten dena, esaten dena, zuk diozu uneko zerbait izango dela pentsatzen duzula, baina orduan ez dakit haizeak hortik jotzen duen, kontua zein egoeratan dauden jakitea da, lehen eskutik.

• Unai Gotxi Kastrexana: asteburu honetan berriro arazoak egon dira gaeuz pilonatik erdigune historikora anbulantziak sartzeari dagokionez. Ikusi dugu berriro kodeak igorri direla anbulantzia-enpresa ezberdinetara, Osakidetza eta abar, zergatik oraindik halakorik gertatzen da? Zergatik daude oraindik arazoak larrialdiak erdigunera iristeko dagoeneko kodea badaukate?

Alkatea: bada, ezin dizut erantzun. Ez dakit zein den arrazoia, baina Guruzetarekin, Galdakaorekin, ditugun harremanen harira, bada harreman zuzena dugu Bizkaiko larrialdietako anbulantziekin. Era berean, haiekin harremanetan jarri ginen eta esan genuen "aizu zera gertatu da", asteburu honetan... eta aipatu dute "izan ere, guk ez daukagu kodea", Bizkaiko larrialdietan, 112 zerbitzuak bazuen, baina Bizkaiko Osakidetzako larrialdietan ez zuten. Horrenbestez, lau txartela helarazi dizkiegu. Galdetu diegu "zenbat txartela behar dituzue zuen kabuz moldatzeko?". Laurekin nahikoa da Bizkaiko larrialdietako anbulantzien zentrorako, horiek baitira hemen joan-etorrian ibiltzen direnak. Beno, bada, lau txartela eta kodea, eta berriro igorri ditugu, bada 112 zerbitzura, Iguatoriora, Sanitasera igorri dugu, anbulantzia-zentro guztietara. Ezin dizut arrazoia zein den esan.

Unai Gotxi Kastrexana: baina hori alde batera utzita, ez al da bilkurarik egiteko asmorik, besterik ez bada Osakidetzako koordinazioarekin ikusteko zerk huts egiten duen zehazki sarbide-kodea ez emateko. Izan ere, beste udalerrri batzuetan ere erdigunea itxita dago, esate baterako, Balmasedan, eta ez dakit guk ditugun arazo berdinak ote dituzten.

Alkatea: bada, ez dakit arazo berdina ote duten ala ez, baina oraintxe bertan uste dut Bizkaiko anbulantziekin koordinazioa edukita dagoeneko hori estalita dugula, ez du zertan berriro gertatu behar.

Unai Gotxi Kastrexana: Gertatu egin da, ez dakit gaia behar adina irmotasunez jorratzen ari ote den, baina argi dagoena da berriro gertatzen bada, egunen batean zorigaitoren bat gertatzen bada, hona etorriko direla kontu eske, izan ere, ez dira Osakidetzara joango ezin izan dutela sartu esatera. Hona etorriko dira arduraduna Udala delako.

Alkatea: eta beste zerbait ere gertatzen da, urgentziekin ere arazo berdinak izan ditugu, Guruzetara eramateari dagokionez, izan ere, batez ere traumatologian Galdakaora bideratzen ziren, ez zuten han ...

Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina han irteera bat dute bederen. Hemen, argi eta garbi, anbulantziak ezin izan zuen erdigunera sartu. Etxean gera zaitezke. Eta ez dira joango Guruzetara edo anbulatoriora esatera "aizu, anbulantzia ez da sartu", hona etorriko dira eta ea hemen zer erantzuten dugun.

Alkatea: esan dizut dagoeneko zer egin dugun. Igorri eta Osakidetzako Bizkaiko larrialdietako anbulantzien zerbitzuarekin harremanetan jarri gara.

Unai Gotxi Kastrexana: beno, tira, besterik gabe, argi gera dadila arduradunak zuek zaretela.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, Unai, baina harreman horiek beti egin izan dira. Piboteak jarri zirenean, nagusiki jorratu zen gaia, lehenetsi zen gaia, itxiztat eman aurretik lotuta utzi zena, larrialdien gaia izan zen. Osakidetzari nahiz larrialdiei, Iguatorio eta pribatuei jakinarazi zitzairen, eta arazo horiek gertatu egin dira. Eta gogorarazi egin dira, izan ere, uste dut hau dela kode hori jakinarazten den hirugarren edo laugarren aldia.

Unai Gotxi Kastrexana: beraz, ez dela eraginkorra izan ikus daiteke.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, ados, eta zer, zer egingo duzu? Pibotearen kodea jarriko diozu azpian Iguatorio, Sanitas edo Osakidetzako urgentzietako zuzendari edo koordinatzaileari.

Unai Gotxi Kastrexana: haiekin bilkura egiten ahalegindu, zerk huts egiten duen ikusteko. Izan ere, pentsatzen dut kodea telefono bidezko dei batekin jakinarazten dela.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, bai, horregatik. Gauza bat ez dut ulertzen eta nik hori jakin nahiko nuke, anbulantzia bat etortzen bada zergatik ez da 112 zerbitzura deitzeko gai erdigunera sartzeko kodea eman diezaioten.



Joseba Vivanco Retes: baina Inma, lñigok esandakoaren arabera, kodea eman egin da. Pentsatzen dut kodearekin aski izango dela. Bizkaiko anbulantziatara eskatzea. Pentsatzen dut larrialdiren bat baduzu 112 zenbakira deitzen duzula. 112 zerbitzua izan beharko da informazioa iraultzeaz arduratuko dena eta 112 zerbitzua izango da esan behar duena, hor agertzen baitzaio, "azti, leku horretan pibotea dago".

Inmaculada Vivanco Retes: bai, bai, horrexegatik diot ez dudala ulertzen zergatik ez dagoen, anbulantzia iritsi eta ikusten badu, hori jakin egin beharko luke, 112 zenbakira dei bat dagoenean ...

Unai Gotxi Kastrexana: jakin egin beharko lukete, baina ez dakite. Gu gara kode horren berri izan dezatela arduratu behar garenak.

Inmaculada Vivanco Retes: edo 112 zerbitzuak berak dagokion anbulantziari abisua eman beharko dio, 112 zerbitzuak abisua jaso eta helarazi egingo du. Jaso egin behar du eta zedarrituta dagoen leku bat dela ikusi beharko du nonbait eta sarbide-kodea behar dela, eta abisuarekin batera sarbide-kodea eman behako luke.

Joseba Vivanco Retes: begira Inma, urrats hori da logikoena. Begira, horixe da urrats logikoa, lehendabizikoa, eta guztiok ikusten duguna. Huts egiten du ordea. Izan ere, zuk 112 zerbitzura deitzen baduzu eta 112 zerbitzuari botoi bat atera behar zaio adieraziz "azti, hemen dena delakoarekin sartu behar da, ez dakit zerekin, anbulantziak jakin egin behar du eta hau da kodea". Eta muinean huts egiten duzu.

Inmaculada Vivanco Retes: izan ere, horixe izan zen behin eta berriz azpimarratu ziren gaietako bat, uste dut harreman gehien larrialdietako gaiekin egin zirela.

Unai Gotxi Kastrexana: ikusten denez, ez da eraginkorra izan.

Inmaculada Vivanco Retes: eta hau izango da hori errepikatzen den laugarren aldia, bosgarrena ez bada. Bada, ez dakit, berriro igorri da.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, bidaltzearekin ez da aski. Haiekin bildu beharko duzue zerk huts egiten duen ikusteko.

Inmaculada Vivanco Retes: piboteekin edo edozer gauzarekin arazo bat egon denean, Ertzaintzaren patruilaren bat ikusi dut nik sartzeko kodea erabiliz. Esan nahi dudana da kodeak funtzionatzen duela, orduan ez dakit...

Joseba Elejalde Ribacoba: honen harira, eta alkatetzatik esaten bazaigu larrialdietako zerbitzuek, 112 zerbitzuak, dagoeneko kodea badutela, nik uste dut azken finean koordinaziorik eza ematen dela sarritan, dela Osakidetzagatik dela eskumeneko administrazioagatik. Ni aurreko batean harrিতa geratu nintzen, izan ere, 95. urteko Artziniega eta kitto edizio bat topatu nuen. 95. urtean dagoeneko adierazten zen Artziniegako herritarrek Gurutzetako ospitalera joan behar genuela, eta lankidetzaz hitzarmen bat ere jasotzen zen. 2017. urtean gaude eta ni iaz Galdakaora igortzen ninduten. Hots, esan nahi dudana da, azken batean guk erantzukizun bat dugula eta Gobernuko taldeak berea izango duela, baina Gobernuko taldetik esaten bazaigu haiei, eta pentsatzen dut gainera fax ezberdinetan edo izapidetu den moduan hala jasota egongo dela, urgentzietako zerbitzuei kodea eman zaiela, beste behin errepikatu behar zaie kode bat dagoela, bai 112 zerbitzuari errepikatu kode bat dagoela, bai, baina egia esan, gero bakoitzak ikusiko du. Guk badugu gure erantzukizuna bai, baina larrialdietako zerbitzuek ere badute beren erantzukizuna.

Unai Gotxi Kastrexana: argi dago. Ez da gure errua kodea ez bazaie iristen. Baina Udala da arduraduna anbulantzia hori sartzen ez bada. Horrenbestez, besterik gabe, adostu dezakegu kodea bidaltzea, hartu txartela eta kodea, eta zuek konpondu, edo saia gaitzke haiekin bilkura bat egiten eta koordinazioarekin duten akatsa bilatzen.

Alkatea: Aipatu dizut Osakidetzako Bizkaiko larrialdietako anbulantzien arduradunarekin hitz egiten aritu garela. Pertsona horri adierazi zaio "zer gertatu da".

Unai Gotxi Kastrexana: Eta arazoa identifikatu da?

Alkatea: bada haiek ez zuten kodea. Eta 112 zerbitzuak dio "guk hemen ez geneukan". Bada tira, konpon dezagun, medikuntzako espezialitateekin gertatzen zen moduan harremanak egin genituenean, Ezkerraldea-Enkarterriko ESI erakundeko arduradunarekin hitz egin genuenean, espezialitate guztiak atera genituen, eta itxura batean traumatologian antzinako orri bat zutela gertatzen zen eta Galdakaora eratortzen zintuena. Eta beste kasu batean,



Osakidetzako web-orrialdean zegoena eguneratu gabe zuten eta erreferentziatzeko ospitalea Galdakao zen, Gurutzeta izan beharrean.

Unai Gotxi Kastrexana: nik berriro ez dadila gerta espero dut, besterik gabe.

Alkatea: Guztiok espero dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta berriro gertatzen bada ez dadila zorigaitzo bat izan eta ez daitezela ona etorri erantzule bila.

Alkatea: hori espero dugu guztiok. Eta guk berriro igorri diegu guztiei, hirugarren edo laugarren aldia izan da, zuk esan duzu ezta Inma.

Inmaculada Vivanco Retes; bai, bai, gehiago ez badira.

Alkatea: Nahikoa? Izan ere, agian sekula ez da nahikoa egitea, baina... gauza hauetan, baina egin dugu.

• Alazne Lafragua Ureta: nik galdetu nahi nizuen ea badakizuen nola dagoen, pentsatzen dut badakizuela askotan etorri baitira aipatzera, non zegoen txatartegia, pentsatzen dut noizbait joango zinetela, hondakin mordoa dago han botata, biltegiatuta inor haletaz arduratu gabe eta, are, udal Garbigunea bilakatzen ari da, hots, jendea joan egiten da, gauzak utzi eta alde egiten du. Orduan, ez dakit horrekin zerbait egiteko asmorik dagoen, gai hori begiratzeko, aztertzeko. Gero URA agentziarekin hitz egiten dugu, ura gora eta ura behera. Hor dagoen zikinkeria, gaizki hitz eginez, izan ere, olioia, gurpilak, milioika gauza dauden bertan eta nolabait esku hatu beharko da. Eta badakit Udalean aipatu den zerbait dela eta ez dela ezer egin, horrenbestez, gai horretan esku hartzeko asmorik dagoen jakin nahi nuen.

Alkatea: espedientea begira dezakezu, izan ere, jardueraren baimena Eusko Jaurlaritzan abal bat aurkeztearen baldintzapekoa zen, eta Eusko Jaurlaritzak sarritan dei egin dio jardueraren titularrari, eta nik dudan azken albistea da Eusko Jaurlaritzak abala erabiltzeko asmoa duela.

Alazne Lafragua Ureta: bada momentuz, nik ez dakit noiztik dagoen txatartegia itxita baina bertan jarraitzen du. Josebak lehen aipatu duena da, igerilekuen gaiari dagokionez joan behar den moduan, hori ere begiratu egin behar da, izan ere, hori da hori.

Alkatea: espedientea begira dezakegu, nik ez daukat gogoan hitzez hitz baina Eusko Jaurlaritzak, baimena eman zuena dena, abal bat badauka, eta...

Alazne Lafragua Ureta: bai, baina hori besterik ez, gaiari heldu diezaiogun.

Alkatea: Eusko Jaurlaritza horretan dabil.

Alazne Lafragua Ureta: bai, baina oso motel dabilta edo ez da aski izaten ari. Eta Udalaren aldetik ere hartu beharko da nolabaiteko erantzukizuna. Ezin zaio guztia Eusko Jaurlaritzari egotzi, esan nahi dudana da, hor dagoen zerbait da, presioa sartu beharko da behintzat. Zerbait egin beharko da.

Alkatea: guk Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin dugu. Tira, ez dugu eskakizunik igorri idatziz, hori ez, baina Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin dugu, espedientea daraman ikuskariarekin sarritan hitz egin dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: jarduera nagusiari dagokionez jasotzen zenez, baziren zenbait neurri zuzentzaile sekula gauzatu ez zirenak. Txatartegiaren aurretiko jarduera nagusiari dagokionez. Ez dakit zeintzuk izango ziren enpresa hori martxan jartzeko txatartegiak izan behar zituen neurri zuzentzaileak. Hori da Alkatea esaten ari zaiguna, azken batean Eusko Jaurlaritzak abal bat izatea, eta abal hori erabiltzea edo ez erabiltzea, baina neurri zuzentzaileak jarduera nagusiak ere ez zituen, eta ondoriozko jarduerak, bigarrenak, ere ez. Guztion aldetik ardurak uztea, pentsatzen dut hori gertatuko zela. Administrazio guztien aldetik, izan ere, azken batean. Eusko Jaurlaritza da hori kontrolatu behar duena.

• Arkaitz San Jose Martinez: nik atera ohi dut, noizbehinka, gairen bat berritasunik ote dagoen ikusteko. Legealdiko lehen Osoko Bilkuretako batean, 2015eko ekainean, Udalsarean sartzea onartu genuen, sarrera horren aurka azaldu ginen gu, ez dut gogoan aurka azaldu ginen ala abstentzioa eman genuen, baina tira, izan ere, hain zuzen, aipatzen genuen ez zela akordio baten sinadura soilik, baizik eta konpromiso bat hartzea zela, eta horien artean Agenda 21 egunean eramatearena, eta batez ere herritarren partaidetzarako espazio bat gaitzea. Aipatu



genuen sartzearena gure ustez iraunkortasunaren aldeko euskal udalerrien sare horretan sartzearekin eskura zitezkeen diru-laguntzengatik zela, eta ez dakit berritasunik duzuen, edo denborak arrazoia eman ote digun. Eta oso ondo dago diru-laguntzak jasotzeko aukera izatea, noski, baina tira, iraunkortasunaren aldeko udalerrien sare horretan dugun harreman horri esker ekarpenen bat jasotzea ere espero genuen, baldin eta hara joan bagara. Eta beno, beste leku batzuetan zer egiten ari diren ikustea, izan ere, nik orain bi urte baino ez ditut egingo zinegotzi modura, baina beno, ikusten dut proiektu andana dagoela, edo arreta merezi duten espazio ugari bederen, eztabaida daitezkeen kontu ugari, bitarteko fisikoa eta Artziniegako ingurumena denari buruzko ikuspegi integrala izateari buruz, esate baterako, Lorerraren auzia, Tejerari dagokion auzia, izan ere, azkonar pila bat dago mendian, badakigu narrastien komunitate nahikoa interesgarri zenbait daudela, arteko cerambix delakoaren gaia, ibilbideak, egoera nahiko onean dagoen errekaen burua, hondakinak, urak eta, are, energia ez aipatzearen. Hots, andana dago, orain luminariak aldatzeko gaiarekin gaude, nire ustez eztabaidatu beharreko gai asko dago eta foro hori interesgarria izan daitekeela. Horrenbestez, nire ekarpenak bi norabide ditu, zer jasotzen dugun eta zer egiten ari garen.

Alkatea: aprobeitza dezakegu begira, hurrengo batzordean Aintzane dagoenez, Aintzane Udalsareako foroetan parte hartzen du, eman diezagula hark beste udalerrri batzuetan egiten ari direnaren inguruko ikuspegi bat, esperientzia interesgarri batzuen inguruan.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, Aintzane datorrenean aprobeitxatuko dugu. Eta uste dut, eta gainera Aintzanearekin eztabaidatu dut, Koadrilan hondakinak jasotzeko Pleguari dagokion gaia oso lanketa handia dela, etorkizunean hondakinak biltzearena nola jorratuko dugun ikustea da kontua, kontuan hartuz multzo organikoa, eta beno, bilketak egun ditugunak baino hobekak izan daitezela, baina noski...

Alkatea: baina agian Udalsarea sarea bera filosofia jakin batekin sortu zen, jarduera ezberdin batzuetarako bilakaera izan du, hemen eskolako Agenda 21 ere nola gauzatzen dugun ikustea, gauza daitezkeen, ezin ote den... nik uste dut eztabaida interesgarria dela.

Arkaitz San Jose Martinez: eskola Agenda 21 proiektuaren barruan dago, oker ez banago.

Inmaculada Vivanco Retes: bazegoen.

Alkatea: ez, ez daude. Uste dut ezetz.

Arkaitz San Jose Martinez: egon da, ziur.

Inmaculada Vivanco Retes: bai egon da, baina ikastetxeko kide bakar batek ere ez zuenez ardura beregain hartzen... baina badira dagoeneko bi urte agian.

Arkaitz San Jose Martinez: eta argi dago aldatu egin dela. Berez, lehen iraunkortasunaren alderdi guztiak txertatzeko ahalegina egiten zen, baita alderdi ekonomikoa ere, eta ekonomiarena ere alde batera utzi dute pixka bat, baina tira. Horrenbestez, Aintzane datorrenean aprobeitxatuko dugu.

Alkatea: Besterik?

• Joseba Elejalde Ribacoba: bai, zeraren harira, dakizuenez Artziniegako Tiburon taldeak peñista eguna antolatuko du maiatzaren 27an, hots, lurralde historikoan, Euskadin eta inguruko probintzietan dauden Athletic taldeko peña guztiak anaitasunezko egun bat ospatuko dute. Bada, dakizuen moduan, Tiburon peñak egun horretan hainbat jarduera antolatu eta egingo ditu, egun osoan zehar, eta bi arazo dituztela aipatu didate. Batek anbulantziaren gaiarekin du zerikusia, azkenean anbulantziak kobratu egingo die, uste dut 450 euro direla, eta Udaletik helarazten zaien garbiketaren kontuarekin zerikusia duena ere bai, garbiketa beregain hartuko lukeela, edo hartu beharko lukeela...

Alkatea: barkatu Joseba, hemen nuen hori Bilkura amaitzean zuekin hitz egiteko.

Joseba Elejalde Ribacoba: barkatu, esan egin zidaten eta... peña horri jakinarazteko zen, besterik gabe, azken batean borondatezko lana egiten ari baita asteburu horretan Artziniega peñista edo Athletic egunaren erdigune neuralgiko bilaka dadin, izan ere, asko dira zaleak, tartean ni, bada, bi gai horiei irtenbidea emateko. Esleipen zuzen bidez bada, edo beste diru-laguntza batzuetan bezala idatzi bat sartu behar duten udalerrri honetako beste talde batzuei bideratuta, diru-laguntza eskuratu ahal izateko, modu horretan, ahalik eta lasterren, izan ere, zehazki 15 egun geratzen direla ari gara esaten ekitaldi hori egiteko, bada nola burutu daitezkeen



ikusteko. Gehienbat, peñen elkartetik, beste udalerrri batzuetan sekula ez da garbiketa kobratu noski, eta anbulantziaren kontua izan daiteke baiezkoa edo ezezkoa, baina garbiketa udalerrri bakar batean ere ez, ez Muskizen, ez Burgosen, ez Medinan, ez dute kobratu. Ekitaldi horretan udalerrira gutxienez 700 eta 800 pertsona bitartean iristea aurreikusten da. Ekitaldiak goizeko hamaiketan (11:00) hasiko dira, mendi-martxa bat dago goizeko bederatzietan (09:00), gaueko hamaikak (23:00) edo hamabiak (00:00) arte, eta Artziniega Athletic taldearekin identifikatuta sentitzen den guztion ahotan izango da.

Alkatea: ez, ez, baietz Joseba, ni behin hemen izan nintzen eta gaia planteatu genuen, "Garbiketa? Bada, ez dugu aurreikusi, bide-garbiketa", eta diot, bada egin dezagun festetan bezala, aurrekontu bat eskatuko dut zenbatera iristen den ikusteko, eta hitz egingo dugu. Eta nik aurrekontua gaur daukat Gobernu Batzordearen ondoren, ez dakit zein orduan iritsi zaidan, eta hona ekarri dut gero aipatzeko.

Joseba Elejalde Ribacoba: aipatu behar baduzu ongi. Niri dagokidanez, helarazi didaten kontu bat da, besterik gabe, ni peña barnean nago, orduan eguerdian deitu didate bi arazo horiek zituztela esanez, peñak berez beregain hartu ezin dituen bi gastuekin, ekonomikoki ez baitugu halako dirurik. Gu, azken batean, peñen batzordean esandakoa ari gara aipatzen, eta diru hori ez dagoela zenbatuta esan digute eta ezin digutela eman. Orduan, ea diru-laguntza zuzen batekin, eta idatzi bat izan behar bada jakina, gastuekin edo fakturekin, peñako presidentea pozik utziz...

Alkatea: bada, guk zuzenean guregain hartuko dugu igandeko ezohiko garbiketa eta kito.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta ondoren anbulantziaren kontua dago, ez dakit nola konponduko den. Izan ere, jakina, anbulantzia 450 euro dira. Gero, sarritan aipatu dugu, el Palacio urbanizazioko irteerako ispilua dago. Nik Udal honi eskatuko nioke lehenbailehen ipin dezala, izan ere, ni egunero irteten naiz handik, eta ni bezala beste asko, eta arriskutsua da.

Alkatea: gu Juan Luisekin harremanetan jarriko gara non jarri behar duen esateko eta jar dezala.

Joseba Elejalde Ribacoba: egunero ateratzen naiz eta esaten dut, "halako batean kamioi batek edo...", eta hori orain asko ikusten dela, lehen baino askoz gehiago, baina hala ere.

Joseba Vivanco Retes: honen harira, joan den egunean pertsona batek aipatu zidan idatzi bat sartu zuela aspaldi ispilua kontuarekin eta erantzunaren zain dagoela. Jarri edo jarri erabaki izana alde batera utzita, esan zidan "ni erantzunaren zain nago, jarriko duten ala ez".

Alkatea: bai, erantzungo dugu, jabekideen erkidegoarekin hitz egin genuen moduan, esan baitziguten, pertsona batek jar zedila eskatu zuela, eta jabekideen erkidegoak ispilua bazuela esan zuen.

Alkatea: Besterik?

Eta jorrazteko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamar minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.